


Astekaria

**Z
E
R
E
A
A**
elgoi



Arnaldo Otegi
**Lehen elgoibartarra
Legebiltzarrean**



BODEGAS ERRASTI, S.L.

Bodegas Errasti

Banatzailea: Julio Bueno

- "Solar Gailur" ardoak
- "Ardandegi" Ardoak
- "ZUDUGARAI" Getariako txakoliña
- "Cavas HILL" en ordezkari-tza
- "ILAGARES" ardo nafarraren ordezkari-tza

AITZ BIZKAR
ARDOAK

*Ondo para Errosario
haleko Jaiak!*

Ura • Patata • Makailoa • Likoreak
Errosario, 20 • ☎ 74 02 37 • ELGOIBAR



INTSUMISIO EGUNA 95

Urriak 8 igandea

Bermeon


AUTOBUSA
Goizeko 9etan
Plaza Haundixan



ELGOIBARKO TALDE ANTIMILITARISTA

JOSE MARI ARANZAMENDI "KATEI"

Edari Banatzailea



GURELESA



SANTA ANA 41. ☎ 74 10 41 - 74 11 32

elgoi**BARREN**
Nafarroa enparantza 2
☎ 74 41 12

ARGITARATZAILEA:

Elgoibarko Izarra.

LAGUNTZAILEA:

Elgoibarko Udala.

ZUZENDARIA:

Ainhoa Lodoso.

ERREDAKZIO AHOLKULARITZA:

Andres Alberdi, Izaskun Elizburu.

KAZETARIAK:

Ainhoa Lodoso,

Jasone Osoro.

MAKETATZAILEA:

Maitte Rementería.

PUBLIZITATEA:

Nekane Etxaniz.

ADMINISTRAZIOA:

Amaia Martín,

M. Angeles Ortuoste.

KOLABORATZAILEAK:

Irati Agirreazaldegí, Andres Alberdi, Esteban Antxustegí, Pello Arrieta, Felix Arrizabalaga, Mikel Artola, Izaskun Elizburu, Jon Etxabe, Jon Eugi, Ina Garagarza, Joseba Gorosabel, Lorea Gorostiaga, Amaia Gorostiza, Xabier Gorriti, Ana Igartua, Maitte Iriondo, KOKOE, Joseba Konde, Edurne Korta, Imanol Larrañaga, Javi León, Antonio Matías, Susana Mujika, Maitte Solozabal, Karmelo Urdangarin, Aitor Zabaleta, Julen Zabaleta.

BANAKETA ARDURADUNA:

Imanol Larrañaga

INPRIMATEGIA:

Gertu koop. E.

(Zubillaga Oñati)

TIRADA: 3.500 ale

LEGE GORDAILUA: SS-1.038/92

ISSN: 1133-021X

elgoi**BARREN**ek ez du bere gain hartzen aldizkarian adierazitako esanen eta iritzien erantzukizunik.



Hurrengo belaunaldiei begira

Elgoibarrek izan ditu orain bezain momentu estuak eta latzak, bai gerra aurretik baita gerra ondoren ere. Hala ere, ez da oraindik oso aspaldikoa gure herrian lana barra-barra zegoen garaia, hirurogeigarren hamarkadaren bueltan edo. Badirudi orain guri etorkizuneko sasoi oparo baterako baldintzak prestatu beharra egokitu zaigula parean.

BARRENen eta sail honetan, hain zuzen, herritar batek Elgoibar polit eta txukunago baten alde lan egin behar genukeela aipatzen zuen, hemen bizitzea atseginagoa egiteko. Erabat ados. Orain jarritako lorontziek, hiri zaharreko harrizko lauzek, argi farol berriek eta Altxolako dorretxearen berrikuntzak hasitako bideari jarraitu behar zaio, etxe eta eraikuntzek beren itxurari helduta.

Bestalde, badirudi premiazkoa dela herriaren irudi ona kanpora azaltzea hainbat oroitzen txar ameskaizto bezala utziz. Gure herrira urrun-urrunetik industriaren teknologia berria ikastera etortzen diren lagunei oroitzen atsegina utziko liekeen tratua eman behar genieke... eta ez bakarrik herri erakundeen aldetik.



Herritik kanporako proiektzioa izan dezaketen ekintzen berri eman behar genuke lau haizeetara: besteak beste, musika kontzertuak, Nazioarteko Folklore jaialdia, Elgoibarko Izarra edo Ongarrik antolatzen dituzten ekintzak. Kirolaren inguruan ostera, Mugerza lasterketa, Nahaste-Borraste frogak, Urgazi, Morkaiko zein Perretxiko lehiaketa... barka, baina artikulua honen luzera mugatua denez, ezin ditut denak jarri. Dena den, ildo honetan denok osa dezakegu zerrenda itxuroso bat.

Hemendik urtebetera Kilometroak 96 Elgoibarren ospatuko da lehen aldiz. Ikastolen jaia izateaz aparte, herri honen jaia eta erakustokia izan daiteke, ez egun horretan soilik, urte guztian zehar antolatuko diren ekintzetan ere bai.

Gure herrian hainbat sektore euskaltzalek zein kulturazalek, gertakari honen inguruan eta goian aipatu ditudan ideiei begira, urtebetez lankidetzan aritzeko aukera ezin hobea daukagu. Hurrengo belaunaldiek eskertuko digute eta.

Joseba Konde

*Eusko Jaurlaritzako
Kultura Sailak, Foru
Aldundiak eta
Elgoibarko Udalak
diruz lagundutako
aldizkaria*





GALDERAK

“Zergatik astelehenetako zinea ez da gauetan bakarrik eman beharrean arratsaldeko 7,30etan ere ematen?”

Kultur teknikariaren hitzetan “lehenago astelehen arratsaldeetan emanaldia zegoen baina jenderik joaten ezenez kendu egin genuen. Are gehiago, sapa-
tu arratsaldeetako saiora ez da inor joaten eta kentzeko asmotan gabilta”.



KEXAK

Guraso batek deitu digu nagusi batzuen portaera salatzen. Umeentzako zinea emanaldietan (pelikulak onak direnean batez ere), guraso batzuk kolatu egiten omen dira eta haurrek sartu ezinik gelditzen dira nahiz eta kolatu aurretik jarri.



TXALOK

Ikastolako 5. mailako ikasleak etorri dira euren gurasoak txalotzeko intentzioarekin. Berceora egin zuten irteeran primeran pasa omen zuten eta aurrerantzean gehiago egiteko gogoarekin geratu dira.

ESKUTITZAK

Euskal gazteriaren kriminalizazioa gelditu!!

Euskal gazteriak badaki ondo bere etorkizuna bermatzeko, Euskal Herriak konpondu gabe dituen arazoei irtenbidea eman behar diela. Ehundaka dira erbestean edo espainiar Estatuko gartzeteetan giltzaperatuta dauden gazteak beraien herriarekiko hartu duten konpromezuagatik.

Nola liteke gazteriaren zati handi batek, langabezia dela-eta, bere etorkizuna kolokan izatea, eta bitartean enpresa publiko eta erakundeetatik sortutako lanpostu urriak “atamarrez” ematea?

Nolatan daude zigorrik gabe droga trafikatuak, Galindo buru dutela, Euskal Herriaren kontsumo, dependentsia eta heriotza portzentaiak beldurgarriak direnean?

Militarkeriaren aurka lanean ari den gazteriari ere egurra ematen zaio. Hortxe daude espetxeratutako ehundaka intsumiso, Gobernu espainolaren eskutik eta Ertzaintzaren laguntza paregabeari esker.

Irakaskuntzan hobekuntzak eskatzeagatik zapuztuak; Gaztetxeak eskatzeagatik zapalduak.

Zer esan dezakegu Ezker Abertzale mugimenduko gazteenganako errepresioaz? Hortxe ditugu Salaberria eta Iparragirrenen kasuak, Jarraiko kide izateagatik torturatuak eta zapalduak, eta En-tzutegi Nazionaletik pasatu ondoren 5.000.000 pta.ko fidantza-erreskatea ordaindu eta gero aske utzi dituztenak.

Honen guztiaren aurrean, aspaldi ikusi zuten euskal gazteriak bere eginbeharra borroka dela, bere esku dituen baliabide guztiak erabiliaz eta beste guztiok batera, Euskal Herriaren etorkizuna erabakitzen.

Ekindako bideari jarrai diezaiozuela esaten dizuegu HBtik, zuen eta guztion etorkizunari irtenbidea emateko bide bakarra baita. Jo ta ke irabazi arte!!

Elgoibarko Herri Batasuna

Andres Alberdiri erantzuna

On hutsa da Jainkoa. Berak gure minean parte hartu zuen.

Jainkoa ona da. Jainkoa maitasuna da. Heriotza, pekatuaren eragina da, hala dio Bibliak. Eta heriotzarekin beste min eta sufri-
mentu guztien eragina. Pekatua, benetako Jainkoaren etsaia da, eta gizonaren etsaia. Baina gizonok min eta heriotzaren menpe ikusita, gure Jainkoaren maitasuna errukitu eta Aitaren Seme Jesukristo gu salbatzeko Gizon egin zen; gurekin denean, pekatuan ezik, bat egiteko eta gure mina eta heriotza bere gain hartuz, gainditu eta ezereztatzen. Pekatua aurka eta behartsuen alde bizitzearren heriotzera eraman genuen, Gurutzeko Heriotzeraino. Gudan mina onartzen duen bezala onartzen du baita ere Beregan, bizitza osoan. Horregatik kristauok poz eta indar handia dugu alde horretatik. Gure bizitzatik kendu ezin ditugun minak balio handikoak dira Jesukristonarekin bat eginda bere Bihotza pozteko eta guztion pekatuak ordaintzeko.

Baina kristauaren benetako garaipena Jesukristoren Piztuera da. Piztu da Kristo, Aleluia! Berarekin gu ere piztuko gara, Aleluia! Jesus ez zen gurutzean bukatu, Piztu egin zen. Apostoluekin bizi eta 500 lagun aurrean Zerura igo zen. Han dugu maitasunez beteta gure zain, betiko besarkada emateko prest. Eta Berri Pozgarri hau, gizon guztiak salbatzearren pozik ziren Sanedrinak zigortu zituen eta denek beren bizitza eman arte, munduan zehar neke handiz aitortu zuten. Zer izango da Zerua? Mina ez. On guztiak bai. “Zorionekoak behartsuak...” esan zuen Jesus eta gero ondokoa eskaini zuen: “Handia izango da zuen saria Zeruko Erreinu-
n”.

Bigarren galderak honela zioen: “Non bizi zen Jainkoa mundua egin baino lehen?”. Toki guztietan dago Jainkoa, alde guztietan. Beti izan da horrela, horrela da eta hala izango da. Betiko.

Mari Carmen Garate

HARRIGORRIGOIKO ERROTABERRITARRAK





Futbol partidu baten bueltan ateratako erretratu hau **Fausto Vitoresek** ekarri digu erredakziora. Urtea jakiterik ez dugu izan baina 40 urte eta piku izango dituela esan digu Mari Tere Elkoro-Iribek. Erretratuko neskak C.D. Elgoibarko Haundiko jokalaririk zirenen emaztegaiak dira eta dudarik ez dago taldearen jarraitzaile finenak izango zirela. Haundia nora, emazte-

gaiak hara. Ezkerreko gizona, **Primitivo Iriarte**, Klubeko zuzendaritzakoa zen eta eskuinekoa, **Pepe de La Cruz**, garraiobide modura erabiltzen zuten kamioiaren jabea.

Hona hemen erretratuko izen-abizenak:

Tente, ezkerretik hasita: **Primitivo Iriarte** (†), **Maria Pilar Irusta**, **Conchita Irusta**, **Mari Tere Elkoro-Iribe**, **Mari Cruz Arana**, **Ivone Rubio**, **Victoria Zabaleta** eta **Pepe de La Cruz** (†).

Makurtuta: **Juanita Rementería** eta **Piedad Madariaga**.


**DEBA GARAIA**
INMUEBLE ETA FINANTZA AGENTZIA
ARRASATE ☎ 77 13 02
BERGARA ☎ 76 21 80
ELGOIBAR ☎ 74 42 83


LAGUNTZA OFIZIALAK ETXEBIZITZAK EROSTEKO:
Erabat dohainik eta konpromezurik gabe,
DEBA GARAIAko ofizian jaso dezakezun
dirulaguntzez informatuko zaitu.

DEBA GARAIAREN ZERBITZUAK:

TASAZIOAK, SALEROSKETEN GESTIO OROKORRA, FISKAL
AHOLKULARITZA, FINANTZAKETA, LAGUNTZA OFIZIALAK.



**Mandiola S.L. Egurrak**
Domingo Arrizabalaga
SALEROSKETA
BASOEN MOZKETA
Juan Mugerza 3. ☎ 74 12 56 - (mugikor.) 908 17 10 42



Elgoibar turismo gune 2000. urtean

Gaur egun guztiarentzat ezaguna den parajea, Elgoibar inguruko paisaia, bost urte barru zertxobait ezberdina izan daiteke. Herri industrialala izan da eta da Elgoibar eta paisaia bera ere industrialala. Halere, azken urteotan hirugarren sektoreak izan duen gorakada kontuan hartuta, badirudi Deba Behean ere izango duela eraginik. Turismoa gogor bultzatu nahi da, kostaldean ezezik baita Elgoibarren ere. Agian, hemendik urte batzuetara parke zoologikoa izango dugu herrian bertan.

Debako Ekain koben inguruan gauzatzen da proiektu guztia. Bultzatzailea DEBEMEN (Deba Beheko Mendi Elkartea) da, DEBEGESAREN eta Mutriku, Deba, Mendaro eta Elgoibarko udalen partehartzearekin. Herri eta eskualde gehienek ondare kulturalen bat dute. Gure bailaran Ekain koben inguruan eraiki nahi da, kanpotik datorren jendeak hemen ere izan dezan zer ikusi eta ikasia. Ekain kobetako marrazkiak erreproduzitu nahi dira Astigarribia inguruan, orijinalak jendeari irekiko bali-



■ ■ Lascaux-eko parkean argazkian ikusten den bezala, bisonteak ere daude.

tzaizkie, erabat desagertzeko arriskua baitago. Ekain kobek erakar dezaketen turismoa aprobetxatzeko, Deba ezezik Mutriku, Mendaro eta Elgoibar inguruan ere zerbait egin nahi da. Horrela, turistek, aukera zabala izango lukete bailaran bertan geratzeko. Gaur egun, Izarraitz Bizirik delakoaren barruan, nekazalturismoa dago, zaldiz ibiltzeko aukera, bizikletaz ibiltzeko ibilbideak, parapente ikastaroak... Hemendik aurrera, bestelako zerbitzuak garatu eta eskaini nahi dira. Hitz batean esateko, Deba Behean, Europako eta Euskal Herriko aurrehistoriaren helmuga kultural eta pedagogikoa sustatu nahi da.

"Mendaron aurre historiako parke bat eta Elgoibarren Zoologikoa eraiki daitezke"

Parke zoologikoa Elgoibarren

Debako Ekain marrazkiez eta hondartzaz gain, Talasoterapia zentro bat eraikiko da, Mutriku Itsas museo bat, Mendaron aurrehistoriako parke bat eta Elgoibarren Museo paleontologiko batez gain, baliteke parke zoologiko bat sortzea. Parkeak, animalia bizidunetz gain, maketaz eginiko aurrehistoriako pertsonaia eta elementuak izango lituzke. Hauek guztiak asmoak baino ez dira. Oraindik dena ikusteko dago, aurreproiektua baino ez da egin eta dagoeneko, 1996rako azken proiektua burutzeko dirulaguntzak jaso dira Diputaziotik eta Ministeritzako "Plan Future"tik.



■ ■ Maketen bidez aurrehistoriako irudiak isaladutzen dira..

Ekain II Turismo Gunea

- ▼ Ekain koben eta bertako marrazkien replikak
- ▼ Aurrehistoriako laberintoa
- ▼ Jardin eskultorikoa aire libreko irteera eta ibilbideekin
- ▼ Aurrehistoriako galeria
- ▼ Euskal arte eta kulturaren galeria biziduna
- ▼ Bestelako zerbitzu osagarriak (jatetxeak, dendak...)



■ ■ Jose Inazio Elkoro-Iribe alkate ohia Lascaux-en izan zen Mendaro, Deba eta Mutrikuko ordezkariekin.

Parke, museo, irteera eta bestelako ikuskizun guztiak elkarrekin bilduko lituzke proiektuak. Horrela, turistek, txartel bat erosi eta guztiak ikusteko aukera izango luke. Horrez gain, gure herrietan jango lukete, lo ere hemen bertan eginez, erosketak... Era batera edo bestera, makina bat lanpostu sortzea dago aurrikusita. Alde batek proiektuak berak sortuko dituenak, hala nola, parkeetako zaindariak, museoetarako jendea eta abar eta besteak, zeharka sor daitezkeenak, ostalaritza arloan batez ere. Izan ere, proiektu honen helburu orokorra bailara turistikoki, kulturalki, artistikoki, sozialki, historikoki eta patrimonialki aberastea eta bultzatzea da. Frantziako

"1999. urtean inauguratu nahi da Ekain II Gune Turistikoa"

Lascaux herrian ba omen dago antzekorik. Bertan izan dira aurren lau herrietako alkateak. Han ere koben erreproduzioak dituzte eta hemen egin nahi den antzera aurrehistoriarekin lotutako parkeak eta bestelakoak ere badira. Horietara urtean 3 milioi inguru bisitari urrertzen da.

1999.urterako

Momentuz eta 1996ko ekainera arte, DEBEMEN proiektua egiteaz arduratuko da, guztira 32 milioiko aurrekontua duelarik. Kopuru horretatik 8 milioi Ministeritzako Plan Futures sailak jarriko du, Eusko Jaurlaritzako "Produktu Turistiko berriak" sailak 2 milioi, Foru

Aldundiko Kultura Sailak ere zati bat jarriko du eta gairontzekoa Europar Batasunak edo Udalek jarriko dute. 1999. urtean inauguratu nahi da Ekain II Gune Turistikoa eta guztira 800 milioiko aurrekontua aurrirakusten da. DEBEMENeko teknikaria den Asier Albizuren hitzetan, "proiektu hau aurrera atera nahi badugu, ezinbestekoa da lau Udalen arteko elkarlana batetik eta inbertsio pribatua bestetik".

Turismoa, Deba bailararen bultzagarri

Azpiko taulak adierazten duen bezala, Gipuzkoako eta Euskadiko datuekin konparatuz, Elgoibarren eta Deba Behean bigarren sektorea da nagusi eta hirugarrenaren garrantzia txikiagoa da. Ildo honetatik hirugarren sektorearen garapena gertatuko da estrategia ekonomiko dibertsifikatzaile baten testuinguruan. Hori guztia, jasaten ari garen krisiari aurre egiteko... Zer egin dezakegu?

Zerbitzuen sektorearen barruan, turismoaren azpi saila funtsezkoa da. Debako udalerrian esate baterako, EKAIN, ERMITTIA eta URTIAGAko aztarnategiak ditugu. Ondare bitxi bezain berezi hau herritar guztiei erakuste-

ko asmoa dugu, BAILARAREN GARAPENERAKO ERAGINGARRI EKONOMIKOA izango delakoan.

Nola? EKAINeko kobazuloak erreproduzitzen, bi helburu lortuko lirateke: 1- gure arbasoengandik jasotako ingurune orijinala gorde eta 2- produktu turistikoa eskaini, oinarritzko zerbitzu turistiko zein osagarrien aukera dibertsifikatuekin.

Zertarako? Gure eskualdearen ezaugarri bakarra langabezia tasa izan ez dadin. Proposamen hau nahiko erakargarria izatea lortzen badugu, ostalaritza-azpiegitura egokia eraikiko dugu eskariari aurre egiteko. Honekin batera erreminta makinaren sektorearekin edo auto-

mozioarenarekin erlazioatutako bisitarien joan-etorriari ere erantzuna ematen badiogu, biztanle kopuru dexente bati lekua eskaini ahal izango diogu.

Elgoibarrek aisialdi, turismo eta kultur baliabide ugari ditu, sarritan behar adina baino gutxiago erabiliak eta beraz, errentabilizatu egin behar direnak. Adibide bat jartzekotan, Aita Barandiaranek "MUNUETA-HIRUKURUTZETA" zonaldeari "Triku-Harriaren bidea" deitu zion. Honelako aukera historikoari bizkarra emango al diogu? AHOBETE EZ!, HORRA NIRE ERANTZUNA.

LAN TASA SAILEZ SAIL 1991. urtean				
	1. sektorea (nekazaritza)	2. sektorea (Industria)	Eraikuntza	3. sektorea (Zerbitzuak)
ELGOIBAR	2,69	57,63	4,63	35,03
DEBA BEHEA	2,75	53,56	5,91	37,95
GIPUZKOA	2,43	36,98	6,27	54,30
EUSKADI	2,93	34,20	7,44	55,38

Iturria: Debegesa



GILLERMO GARATE DEBEGESAko presidentea

BETI . . . ARGi . . . S. L.

*Erregalu artikulua
Instalazio orokorrak
Sukaldeko tresneria*

*Ondo pasa jaiak
herritar guztiak!*

Errosario 6, behea. Tel: 74 16 44

IRAEGUI

**MASAIA TERAPEUTIKOA
ETA DEPORTIBOA**

ORDUTEGIA:

- goizez: 10 - 13
- arratsalde: 4,30 - 7

*Aurrez deituz
gero, hobe!*

Errosario kalea 34, 1 eskuina Tel: 74 18 51

*Zatozte
Errosario
leku jaietara!*

**FAB
SOLA**

*Errosario 6
Tel: 74 16 44*

Ikusten al diozu Elgoibarri etorkizunik turismotik?



PRISCILIANO CASADO
73 urte, jubilatua

Ez gehiegi, baina bueno, hondartza gertu xamar dauka eta zerbait egin zitekeen. Ikusteko gauzarik badago Elgoibarren baina turismoa erakartzea, zaila.



JULIA GORROTXATEGI
72 urte, etxekoandrea

Nik uste dot baietz, Bizkaixa aldian funtzionau izan dabe baserrixek. Deba hurrian dao eta hemengo ingurune politxak aprobetxau leikez. Eta gastronomia ere bai.



J. ANTONIO GISASOLA
33 urte, mekanikoa

Ez dut uste. Inbertsiorik edo proiekturik eginez gero, Disneyworlden antzerako makroproiekturen bat edo, agian bai. Baina beste herri bat sortu beharko litzateke.



J. ALBERTO GURRUTXAGA
45 urte, auto saltzailea

Turismua baseritxar alde-tik igual bai, baina bestela nik Elgoibarren ez dot aukerarik ikusten. Deba hartuta zeozer, baina Elgoibarrera turismua ekartzia, zaila.



GEMA ASTIGARRAGA
31 urte, irakaslea

Lehenengo eta behin, infraestrukturia ez dao batere ondo, hotelik ez dao. Ingurune oso majoa daukala uste dot eta hori aprobetxau ein biharko litzake.



MILA OSORO
47 urte dendaria

Zaila. Kanpokuak etortze-ko gauza politxa Mintxeta da. Inguruan ere gauzak badaude, hondartza... Baina Elgoibarren infraestrukturarik ez dao.

okindegia eta gozotegia

San Frantzisko, 4
Tel. 74 07 35
ELGOIBAR

MEKANOSA
Errosario 30
tel: 74 02 84 Elgoibar

- ★ IDAZMAKINEN SALMENTA ETA KONPONKETA
- ★ MULTIKOPISTAK
- ★ FOTOKOPIADORAK
- ★ PLANOEN BIRREGILEAK
- ★ ERLOJU INDUSTRIALAK
- ★ MARRAZKETA MATERIALA
- ★ INFORMATIKA
- ★ FAX *Ordo pasa jaiak!*

ARAZOAK ZURE AHOTSAREKIN?
Hitzegiteko: landu zure ahotsa!
Polipoek, noduloek, ahotsaren erabilera okerrak, etab...
ERAGINDAKO RONKERAK
ANGELA ZABALETA AIZPITARTE
DEITU ☎ 74 15 56

■ Intsumiso Eguna

Elgoibarko Talde Antimilitaristak hilaren 8an, igandea, Bermeon izango den Intsumiso Eguna joateko autobusak antolatu ditu. "Euskal Herriaren Desmilitarizaziorantz, Untziratu Intsumisioan!!" lemapean burutuko da intsumituen jaia. Igandean, goizeko 9etan, Plaza Handitik aterako dira autobusak Bermeorantz.

■ Odol ateraldia

Odol Emaile diren elgoibartarrak Pedro Migel Urruzuno kaleko 8. zkoa den emaleen egoitzatik pasa daitezke gaur, ostirala, arratsaldeko 6,30etatik aurrera odola emateko. Emaile izateko baldintza bakarra 18 urtetik gorakoa izatea da eta gaisotasun kutsakorrik ez edukitzea. Bai emale bai eta bazkide babesle izateko ere, egoitzean izena eman.

■ Masaia ikastaroa

Olaizaga Kiroldegiak hiru hilabeteko iraupena duen kirol masaia ikastaroa antolatu du. Astelehen, asteazken eta ostiral goizean, 9etatik 1ak arte emango dira klaseak. Behin ikastaroa amaituta, norbaitek erreziklaia ikastaroarekin jarraitu nahiko balu, beste hilabete batez luza daitezke klaseak. Kirol errendimendu handiagoa lortzeko, lesiorik ez edukitzeko, mina gutxitzeko eta beste teknika batzuk ikasteko aukera emango du ikastaroak. Izena emateko edo berri gehiago jasotzeko Kiroldegiko 74 13 61 zenbakira deitu.



San Migel auzoak jai giroan murgilduta igaro du asteburua. Eguraldiak ez zuen nahi adina lagundu, baina hala ere, ondo pasatzeko gogorik eta girorik ez zen falta izan. Argazkian igande arratsaldean burutu zen bertso saioa ikus daiteke. Ikuslego aldetik, sarrerak ederki saldu ziren eta bertsoen artean kalitatezkorik entzuteko aukerarik ere egon omen zen.



San Migel jaietako txahalaren zenbakiaren jabea, 06975, Zeletako Anselmo Salazar "Moli" izan da. Txahala edo haren orde, dirua hartzean egoten da horrelako zozketetan duda, baina Molik ez du birritan pentsatu eta txahalarekin geratzea erabaki du. Esan behar, Mautxita baserrian hazitako abere honek "Label" a duela, hau da, kalitate kontrol batzuk pasatu dituela. 95 erralde baino gehiago (ia 500 kilo) dituen txahal hau Armueta harategiak erosi du eta txahalaren okela labelarekin salduko da. Hara hor argazkian Moli, sari ederrarekin.

Maria Urizar	ileapaindegi mistoa
JAI ZORIONTSUAK PASA ITZAZUE!	
Errosario 9-1 ezk. ☎ 74 44 89 ELGOIBAR	

	O I H A L A <i>eta</i> MERZERIA
<i>Pausa jaiak!</i>	<i>Neurrira egindako jantziak</i>
Errosario 8 • Tel: 74 35 95 • ELGOIBAR	



Kilometroetara joateko zazpi autobus

antolatu zituen Elgoibarko Izarrak izena eman zuten 384 pertsona Elgoibartik Donostiara eramateko joan den igandean. Nafarroa Oinez, Ibilaldia, Araba Euskaraz eta Herri Urratsera joateko ere antolatzen ditu Elgoibarko Izarrak autobusak, baina Kilometroak izaten da arrakastatsuen. Datorren urtean Elgoibarko Izarrak ez du autobusik antolatu beharrik izango, denok jakina baita Kilometroak 96 Elgoibarren izango dela.

■ Buztin ikastaroa

Lurki tailerrak buztin ikastaroa emango du hilaren 9tik azaroaren 14ra arte. Klaseak asteleheneetik ostegunera bitartean izango dira, arratsaldeko 6etatik 9etara. Izena emateko edo berri gehiago jasotzeko Aita Agirreko lokalera zuzendu (Aita Agirre behea, ezkerre).

■ Intsumisoen aldeko laguntza taldearen bilera

Gaur, ostirala, hilak 6, Elgoibarko intsumisoen aldeko laguntza batzordea eratzeko bilera egingo da Kultur Etxean. Laguntza taldea herriko zein kanpoko hainbat pertsona ezagunek osatuko dute. Bilera arratsaldeko 7eta izango da.

■ Ludopatia Elkarte

Ludopatia edo jokoarekiko menpekotasuna duten pertsonak eta gaisotasuna gainditu nahian dabilzanak Ongizate Sailera zuzen daitezke "Grupo Hernani de Jugadores Anónimos" elkartearekin harremanetan jartzeko. Ludopatia gaitza jasaten dutenen Elkarte 1990. urtean Hernanin sortu zen eta dagoeneko 50 pertsonak terapia bidezko bileren bidez lortu du jokoarekiko menpekotasuna gainditzea. Asteartero egiten dituzte bilerak eta elkarte irekia dago nahi duen guztiarentzat. Informazioa eskuratzeko Ongizate Saileko 74 10 08 zenbakira dei daiteke.

■ Guraso Eskola

Elgoibarko Udaleko Ongizate Sailaren diru laguntzaz antolatzen den Guraso Eskolan parte hartzeko izen-emate epea hil honen 9an, astelehena, bukatzen da. Interesa dutenek inskripzio orria bete eta bakoitzak bere seme-alabaren ikastatxera eraman beharko du. Hezitzen Elkarteko teknikarien eskutik guraso eta seme-alaben arteko arazoak beste modu batean planteiatzen dira Guraso Eskolan. Hirugarren edizio honetan bi ordutegi egongo dira aukeran: 3etatik 4,30etara eta 7etatik 9etara bitartean.

AUTOBUSAK

Urriak 15 igandea NAFARROA OINEZ 95 Tuteran

Prezioa: 1.000 pta. (Bazkideak 700 pta.)

Izena emateko: Elgoibarko Izarra K.E. (Azken eguna urriak 11)

ANTOLATZAILEA:
Elgoibarko Izarra



LAGUNTZAILEAK:
Elgoibarko Udala / Gipuzkoako Foru Aldundia



Arnaldo Otegi:

"Ezker abertzalearen helburua independentzia da"

Arnaldo, Elgoibarrek ezagutu duen lehen legebiltzarkidea dugu. 37 urteko elgoibartar honek ezingo digu bizitza patxadatsua izan duenik esan: 1968an, 19 urte zituela, Iparraldera alde egin zuen 'orduko errepresio bortitza zela eta'. 10 urte bertan pasa ondoren, atxilotu eta beste bost urte

eman zituen Espainiako kartzeletan. 14 urte Elgoibartik kanpo egon ostean 'herria oso aldatuta' ikusi zuen bueltatu zenean. Egun KASeko militantea dugu eta goizetan zerbitzu enpresa batean lan egiten du. Legebiltzarrera irailaren 27an joan zen lehenengo aldiz.

- Ba al duzue Legebiltzarrera joateko asmorik?

- Gasteizko Parlamentuak ezertarako balio ez duela jakinda, joan aurretik zertara goazen erabakiko dugu. Gaiak aztertu eta merezi duenean helburu jakinekin joango gara.

- 27an Gudari Eguneko gehigarri berezia eta klabelinak lagatzera joan zinen.


- Bi gauza adierazi nahi izan nituen: Batetik, Estatu espainiarraren eta frantsesaren apostua duela hogei urteko bera dela: errepresioa eta biolentzia eta bestetik, Txiki eta Otegi eta gudari guztiak gogora ekarri nahi izan nituen.

- Gudariei buruz ari garenez, Herriaren alde hiltzeak merezi al du?

- Herriaren alde bizi egin behar da! Halere, jende batek prest egon behar du herri honen askatasunaren alde bizia emateko. Oraindik jende asko hilko da, zoritxarrez.

- Eta inor hiltzeak?

- ETak herri honen aldeko borrokan hil egin behar zela erabaki zuenean, oso erabaki traumatikoa izan zen. Hiltzea oso gogorra da baina zapaldu-tako herriak defentsa guz-



"Arazoa ez da borroka armatua, herriaren askatasuna baizik"

tiak ditu zilegi.

- Bakeak esanahi bera al dauka denontzat?

- Ezta pentsatu ere! Horrelako hitz guztiak bere esanahia galdu dute komunikabideen eraginez. Guk ez dugu nahi Euskal Herria bakean egotea, herri hau bere erabakiak hartzeko bakean uztea nahi dugu.

- Komunikabideak aipatu dituzu. Zein da zure iritzia?

- Komunikabideak euskal proiektuaren kontra paper garrantzitsua betetzen ari dira. Bestalde, odola sutan jartzen zait abertzaleak DIARIO eta

CORREO irakurtzen ikusten ditudanean.

CORREO-ko zuzendariak esan zuen bezala, herri honek prentsa espainiarra irakurtzen segituz gero, azkenean botoa ere espainiarra emango du.

- Callejak bi bizkarzain ditu.

- Bai, ondo merezitako beldurrarekin bizi da.

- Modan dagoen gai bat: 'Zerga iraultzailea' ordaindu egin behar al da?

- Dirua daukanak ordaindu dezala nahi baldin badu. Halere, ni ez nau honek kezkatzen, gehiago

kezkatzen nau Estatu espainiarrak zerga kontrairaultzailearen bidez azken hiru urteotan Vascongadasi lapurtu dizkion bilioiak.

- 'Aldaia askatu' 'Euskal Herria askatu' ren kontra al dago?

- Bueno, lazo urdina daramatenek gauza bat izan behar dute garbi: herri hau eta bere proiektu politikoa zapaltzeko prest dauden bitartean, herri honetako independentistak parean izango gaituztela eta gainera ez ditugula bakean utzi-ko.

- Intxaurrondo ere ezagutu duzu. Bera al da lurreko infernua?

- Intxaurrondon, hiltzea ez da alternatibarik txarrena. Baina Intxaurrondon tortura betidanik gertatu izan da eta gertatzen ari da. Bestalde, oso hipokrita iruditzen zait orain kuartel honen kontra egiten ari diren kanpaina.

- Bukatzeko, zuen helburua independentzia dela esan didazu behin eta berriz. Noizko?

- Baldintzak asko hobetu badira ere, epe laburrera ez dugu horrelakorik ezagutuko. Halere, konbentziturik nago nik ezagutuko dudala.

IMANOL LARRAÑAGA

FERISALTSAN

San Migeletako feria eskasa izan zen

Irailiko feria inportantea izaten omen da. Hala diote behintzat. Izan ere, Elgoibarren estrainekoz egin zen feria, irailean izan baitzen. Halere, joan den larunbatean, ganadu gutxi eta baserritar gutxi ikusi genituen Plaza Txikian. Sirimiria izan zen ia egun osoan zehar, eguna lainotsu joan zen eta horrek, ziurrenik, izango zuen eraginik. Halere, zeudenak, kontentu ikusten ziren. Atentzioa deitu zigun idiak eta gure kamara berari hurreratu genion, haren eleganzia eta apartekotasuna isladatzeko asmoz.



Ur horniketa egingo da Urruzuno bailaran

Urruzuno bailarako ur horniketa aste honetan hasi berri da. Orain arte arazo asko izan dituzte auzokideek urarekin, izan ere,

baserri bakoitzak bere iturri propioa dauka eta hortik jasotako ura ez zen nahi bezain ona. Hemendik eta abendura bitartean,

obrak amaitzeko asmoa dago eta kaleko ura eramango zaie Urruzunoko auzotarrei ere bai. Aurrekontua 36 milioikoa da. Kopuru horretatik DEBEMENek 18'5 miloi jarriko ditu nekazariarentzat laguntza bezala. Udalak 14,5 miloi; etxebizitza bakoitzak 300.000 pta. jarri beharko ditu eta baserritarrek 200.000 pta., gainon-tzekoa DEBEMENek eskakainitako dirulaguntzak betetzen baitu.



Baserria norentzat heredentzian?

Baserriak bideragarriak izan daitezzen

Gaur egun baserriak dituen arazoan ar- tean bat aipatzekotan, transmisioa egitera- koan sortzen diren arazoak aipatuko nituz- ke. Baserriaren transmisioan kontuan izan behar dugu transmisioa bizi garenean edo ondoren egin nahi dugun. Baserriaren jabea bizi denean egin nahi den kasuan, salmen- taz edo dohaintzat egiten da. Hil eta gero (post mortem), aldiz, testamentu bidez. Tes- tamenturik ez dagoen kasuetan, Estatuak erabakitzen du banaketa nola egin.

Une honetan "Post mortem" kasuak Es- painiako legez erregulatuta daude eta hon- en arabera, eguneroko errealitateak era- kusten duena ikusita, lasai esan daiteke ba- serria, nahi eta nahi ez, banatu egin behar dela.

Hona hemen adibide bat, baserri askotan ematen ari dena: seme edo alaba bat base- rrian geratzen da eta gainontzekoak kanpo- an bizi dira. Gaur egungo legediaren arabe- ra, baserriaren herena seme alaba guztien artean eta zati berdinetan banatu behar du testamentua egin nahi duen baserritarrak.

Seme-alaben arteko harremana ona bada, baserriaren balorazioa egiteko orduan adostasun batera iritsi daitezke eta ez da ezer gertatzen. Halere, arazoak sor daitezke baldin eta irizpide amankomun batera iristen ez badira. Izan ere, baserrian geratzen de- nak nekazaritzako irizpideak aplikatzen bai- titu eta baserritik kanpo bizi direnek, ordea, irizpide inmobiliarioak. Ezadostasuna nor- malki epaitegietan amaitzen da eta zoritxa- rrez gehienetan ematen den ondorioa base- rriaren zatiketa eta bere bideragarritasuna kolokan jartzea da.

Hau horrela izanik, arazo honi aurre egi- teko 1992ko uztailaren 1etik gaur egun arte, Gipuzkoako Foru Aldundiak aukera dauka lege propio bat sortzeko hemengo ohiturak idatziz jasoz. Hiru urte pasa dira eta Aldun- dia ez da ezertan hasi. ENBA nekazal sindi- katuak lege honen beharra ikusten duenez, bere aurreproiektua aurkeztu du Foru Aldun- dian bai eta Gipuzkoako alderdi politiko guztiei ere.

PILAR ZUBIARRAIN
ENBAko abokatua



Domingo Olaberri, 56 urte
Olaberri baserria (Larruskain)

Guria aitxak lagata daka, zaharrenari laga zion, anai- arreba guztixak hari eman ziozun geure partia, zer erremedio!

Pedro Mari Arrillaga, 42 urte
Arane baserria (San Pedro)

Neri etxata ondo beixintzen danei "a partes iguales" lagatzia. Bat edo batek baserrixan jarraitzeko asmua badaka, harentzat izan bihar da.



Martin Osinalde, 58 urte
Barrenola baserria (Azpeitia)

Mendiko baserrixa danian etekin gitxi ateratzen da eta han geratzen danantzat izan bihar da oso-osua, alde eitzen dabenak hobeto ateratzen dia halere.

Santa Makazaga, 60 urte
Olano baserria (Lastur)

Gaztetikan baserrixan lan egin duanari laga bihar jako. Kalera ertetzen diazenak eukitzen dabe euren lana eta etxia.



Juan Jose Aranguren, 38 urte
Zumeta baserria (Errezil)

Segun lanian zein ari dan etxian. Danak ari badira, berdin beharko luke geratu. Ostantzian, parterik haundixena baserrixan geratzen danantzat.

IPINTZA BASERRIA

Sigman gora abantatu eta bide kaskarra igo ondoren iristen da Ipintza baserrira. Agindu omen zieten Udaletxean konponduko zutela baina, “dirua ez dauan bitxartian, jai”. Zazpi pertsona bizi dira bertan, amona, gurasoak, alaba eta honen senarra eta bi semeak. Amona baratzean zegoen, Rosario esnea partitzera herrira jaitsia zen, Gabriel lanean eta semeak eskolan. Manuelekin eta Arratekin izan gara baserriko kontuez berbetan.



Oraindik ere obretan daude Ipintza baserrian.

Iuliana da denetan nagusiena, 87 urte baititu berak. Halere, besteak bezain sasoi ona du, “eta ahal daban bitxartian baserrixan laguntzeko prest gainera, ortuan, ganaduakin... etxian baino nahixao dau berak kanpua egotia. Edozer eitxen”. Ipintza baserrian esne behiak dituzte. Gauero eta goizero, behiak jetsi eta esnea kalera jaisten dute, 35-40 litro eguneko, “oin, kolesterola dala eta ez dala, baserritik zuzenian hartutako esniak grasa gehixo dakanez, gitxizo saltzen da. Jendiak nahixao izaten dau kajako esniak hartzia. Halere, rentabliaua ateratzen da kalia saltzia Gurelesari ematia baino”. Baina, okelatako behiak hartzekotan omen dira, Arratek esan digunez, “lan gitxio ematen dabe eta diru aldetik antzera”. Nahikoa lan eginikoak dira, Manuel eta Rosario batez ere eta haiei ere iritsi zaie bizitza lasaixeago hartzeko ordua.

Kaleko bizimodua

Manuelek ganadua errenditzen du, Rosario kalean esnea banatzeaz arduratzen da, Gabriel igeltseroa da eta Arratek Arrateko jatetxe batean egiten du lan. Orain urte asko Manueli Sigman lan egitea eskaini zioten baina berak, “ez eta pentsatu ere ez! Ixa haserretu ein nitzan, ni

baserritik kalera zela bajatuko nitzan!”. Gaur egun, ordea, bestelako iritzia dauka “igual han hasi banintz hobe. Pentsio majo bat eukiko naban eta. Baserrixa gaur egunian ez

da lehen bezelakua”. Dena dela, familiako inor ez litzateke kalera jaitsiko bizitzera. Arrateren hitzetan, “nik hilabete pasatu bihar izan naban kalia bizitzen eta itxo eitxen nitzan”. Urte osoan zehar goizeko 6,30etan jaikitzen da Manuel, “astegun edo jaieguna izan. Domeka arratsaldia jai itxen dou oin, ostantzian ezer ere ez. Eta nahi ere ez, kanpora jutia ez jata gustatzen neri. Mendira bueltia ein eta norberan etxera bueltatzia gauza haundixa da”.

Ura eta tximistak

Zoritxarren artean zoritxarrik ezagutu izan dute Ipintza baserrian. 1988an izan ziren uholdeetan, ura menditik behera etorri zen eta baserrian ere izan zuten lurjauzirik, “beldurgarria izan zan. Derrepentian ura eta lurra hasi zian menditik behera. Etxe barruraino sartu jakun”.

Beste behin tximista sartu zitzairen, “dana erre jakun. Entxufiak, labadoria, telebisua, telefonua... Tximistortatza erosi genduan baina ondiokan ez dou ipini”.

Garai batean korta etxe barruan zuten baina orain urte batzuk obrak egin eta baserri ondoan pabeloi bat eraiki zuten. “Etxian bertan ganadua eta askia eukitzia ez zan batere erosua. Oin ez usainik, ez ezer.”

IPINTZA

- **AUZOA:** San Pedro
- **BIZILAGUNAK:** Juliana Lete (87 urte), Manuel Zigorraga (67 urte), Rosario Ariznabarreta (64 urte), Gabriel Estevez (35 urte), Arrate Zigorraga (34 urte), Iñaki Estevez (15 urte) eta Zigor Estevez (9 urte).
- **LUR HEDADURA:** 18 hektarea.
- **ANIMALIAK:** esnetako behiak, oilaskoak, ardiak...
- **PRODUKTUAK:** Etxerako baratza.
- **BIZIMODUA:** Baserritik eta kaletik.

ARDIEI ILEA MOZTEN

Ipintza baserrian ez dituzte ardi gehiegi, 15 inguru edo. Baina haiek ere errenditu egin behar eta egin beharrekoen artean, banan banan ilea moztea dago. Manuel arduratzen da horretaz, “egun batian, trankil trankil hartzen ditzut, hankak lotu eta segitxuan ilia mozten diuet”. Eta ilearekin, zer? Garai bateko estimazioa ez omen dauka ardiaren ileak gaur egun eta erretzeko txarra omen da “asko kostatzen jako”. Beraz, zorte piskatekin, “nor baiti saltzen jako, merke baina etxetik libratzearen”. Manuelek ezagutzen omen du baserritar bat, “haitzulo batera botatzen dabana ardixari kendutako ilia”.

Abdon Baskaran:

68 urte dituen gizon hau sarri ibiltzen da herriko kaleetan zehar panderoa joaz giroa alaitzen. Santa Ageda dela, San Bartolomeak direla, Gabonetan... edozein jaiegun izanaren aitzakian, kalejiran edo erromerian, Abdon Baskaran izan ohi da panderojole ofizialetariko bat. Markina Etxeberri jaioa, Ahizta Gainekoa baserrian, gustura asko aritu da gurekin berbetan. Nabari zaio panderoa atsegin duela, bai eta inguruko guztiak kontatzea ere.

- Aita zenaren eskutik datorkizu musikarekiko afizioa, ez?

- Bai, aitxa zanak batez ere kantau itxen zaban. Abotsa oso ona zakan, sendua, fuertia. Harek Arraten kantatu eta San Migelen entzuten zan, altaboza ematen zaban. Neu 16 urtekin hasi nitzan panderoa jotzen.

- Zure kontura?

- Bueno, anaixak erakutsi zian neri. Erromerixatara jun, hara eta hona, eta ibilixan-ibilixaz gero eta hobeto jotzen naban nik ere.

- Panderoak zuek egiten zenituzten, ez?

- Klaro, beste erarik ez zauan eta. Akordatzen naiz konejuan larruaz zelan eitzen genduaz pandero batzuk. Oso txarrak zian, segitxuan apurtzen zian.

- Orain, ordea...

- Oin kalidade haundiko panderoak daude. Neuk 10 eukiko ditudaz, sukaldeko horman zintzilik.

- Semea soinu-jole atera zaizu.

- Bai. Lehenengo aldiz, bost urte zitxuanian, 3.000 pertsonen aurrian jo zaban panderoa. Aho zabalik laga

zitxuan danak, ikustekua zan zenbat txalo jaso zitxun!. Oin, Zabale anaixekin dabil soinua ikasten. Beraikin makina bat aldiz ibili izan naiz, bikote modura.

- Zu ere ibili izan zara irakasle, ez?

- Bai, Orixora juten nitzan eta nere kargu 26 ume nitzun. Panderoa jotzen erakusten niuen.

- Behatz arinak dituen panderojole ona da.

- Bai, hala da. Halere, belarri ona eukitzia da inportantiena. Musikiantzat belarri ona ez dakanak, nahiz eta behatzak arinak euki, ez dau ezer onik eingo. Nik musikia ez dakit irakurtzen baina baterixia ere jotzen badakitx piskat.

- Kalejira edo erromeria nahiago?

- Kalejiran gustora ibiltzen naiz. Kalez kale jun eta noizian behin tragotxo bat hartzen. Baina erromerixatan ere gustora.

- Eta dantza?

-Trikitixa nahixao jotzia dantza eitxa baino baina ostantzian, agarraua batez ere, gustura eitzen dot dantzatzen.



- Zuenean giro ona izango da ospakizunetan, ez?

- Gurian jaixa danian ez dao tristurarik. Gabonetan ere, neu panderoakin eta semia soinuakin beti dao umoria, musikia, kantua eta barria. Danera eraman izan dot nik panderoa.

- Soldautzara ere?

- Afrikan egin naban eta han erosi naban panderoa. Barre mordo bat eitzen zaban tenientiak nerekin.


- Omenaldirik ere jaso izan duzu, ez?

- Bai, Elgoibarren. Dato-

ren urtian Billafrankan eingo diela usten dot. Urte askuan jun izan naiz bertara jotzera, oso gustura gainera. Plaza berezixa izan da hara beti nerezat.

- Panderoa ezezik, arrantza ere afizio.

- Bai, asko gustatzen jata. Egualdi ona dauanian gustura juten naiz arrantzara. Behin, zazpi kiloko lubinia harrapatu naban. Gustora jan gendun danak etxian. Eta perretxikotara juten ere asko disfrutatzen dot.



ELGOIBARKO TRIKITILARI ESKOLA

SOINUA ETA PANDEROA ZABALE ANAIEKIN

Egunak: **Asteartea, asteazkena eta osteguna**

Ordutegia: **Eskatu informazioa**

Prezioa: **Soinua: 3.500 pta. / Panderoa: 3.000 pta.**

Izena emateko: ☎ **81 33 86**

Merce Rey

Doña Mercedes dendakoa



- **Zer duzu gustukoen; ogia ala esneopilak?** ▶ Ogia, dudarik gabe.
- **Bazkaltzean, ardo epela ala hotza?** ▶ Ona bada, hobeto epela.
- **Nolakoak dira ondoko konpetentziakoekin harremanak?** ▶ Batzuekin ondo eta beste batzuekin ez hain ondo. Baina orokorrean beste okindegiekin dauzkagun harremanak nahiko onak dira.
- **Sagardotegia ala diskoteka lagunekin zerbait ospatzeko?** ▶ Sagardotegietan primeran pasatzen dugu.
- **Lan egiteko, taberna ala okindegia?** ▶ Oso ezberdinak dira. Ez dakit, okindegiaren ordutegia nahiago dut baina ezingo nuke bat aukeratu. Biak dira lan politak.
- **Okinek gauetan parrandan ibiltzeko astirik ez duzuela esan ohi da. Zer diozu?** ▶ Egia da; ogia egiten dutenek oso goiz hasi behar dute lanean eta ia ez dute astirik izaten parrandan ibiltzeko, baina nik ez dudanez ogirik egiten...
- **Norekin hartuko zenuke ardo berezi bat?** ▶ Zurekin.
- **Eta horrela izatekotan, non hartuko genuke?** ▶ Ba, King-Kong-en har genezake, nahiko hurbil dago eta.
- **Olagarroak, "lurrekoak" ala itsasokoak?** ▶ "Lurrekoak" hobe.
- **Pelikula bat?** ▶ Askok dira, baina bat esatekotan, "Pulp Fiction".
- **Eta aktore bat?** ▶ James Dean.
- **Zein eramango zenuke irla bakarti batera?** ▶ Alfon, nire senargaia.
- **Bakailoa, pil-pilean ala dantzalekuan?** ▶ Pil-pilean gehiago gustatzen zait.
- **Animalia bat izatekotan, zein?** ▶ Zaldia, jendeari gehien gustatzen zaion animalia delako.
- **Zure bizitzako ametsa?** ▶ Zaila da, baina bat esatekotan, denbora asko edukitzea nahi dudana egiteko.
- **Zer nolako neurriak edukitzea gustatuko litzaizuke?** ▶ 10 edo 15 cm. gehiago altueraz eta 90-60-90 neurri politak izango lirateke. Hala eta guztiz ez naiz kezkatzen.
- **Afari erromantiko batean zer ogi mota eskatuko zenuke?** ▶ Ogia gutxienekoa da. Ogia eta konpainia ona bakarrik eskatuko nituzke.
- **Antonio Banderasen fisikoa ala Juan Echanoveren talentoa?** ▶ Juan Echanoveren talentoa.

JAVI LEÓN

INSTITUTOKO IKASTURTE BERRIA

DOINUA:

Txoriak eta txoriburuak

Orainartean irria zena askorentzako negarra. Berriro ere zapaldu behar gure Institutu zaharra. Maisuen sermoi luzeak eta andereño txit zatarrak Oporraldian hain ondo egonda ikasten hasi beharra. (BIS)

Euskara, inglesa, gaztelania nola ez matematika, bigarren mailan baita ere daude latina eta fisika. Talde lanean arituzko ematen dute etika. Nik jendeari opatzen diot ez dezala errepika. (BIS)

Ikasle batzui nik nahi nieke oraintxe gauza bat eska: Kurtsoan zehar ez ibiltzea beti bezala iheska. Gero azkenean denetarako nahiko duzue bai presta. Saiatu ez dan ikasleantzat sekula saririk ezta. (BIS)



JON GARATE

DORI urdaitegia

Zatozte gure kaleko jaietara!

Erronka 11 92



Merino zapatak

*Irekita larunbata
arratsaldeetan*
**SALMENTA
KONPONKETAK**

Erronka 11/12 behe

Udal zergak IPCaren igoera izango dute

Zergak IPCaren arabera igotzea erabaki zen joan den ostiralean izan zen plenoan. Lehenbizi HBk hartu zuen hitza. Pello Mendiabalek azaldu zuenez, "HBk, herritarren partehartzea egotea proposatu zuen Haziendan, herriaren iritzia jasotzeko asmoz. Erantzuna ezezkoa izan zen, herria zinegotziek ordezkari-tzen zutela eta denbora falta aitzakitzat jarritz". HBren ustez borondate falta dago, beraz, "eta zergen asuntua tratatzeko mekanikarekin ez gaudenez ados, ez dugu botazioan parte hartuko". HBk Bartzar Aretotik alde egin zuen. Jarraian Fermin Senosiainek, EAko zinegotziak azaldu zuenez, "zergak biltzeaz gain, horren ordainez herritarrak hainbat prestazio jasotzen ditu. Eta bizitza maila igotzen den neurrian, zergak ere igoera jasatea normala da, beti ere gehiegizkoa ez den bitartean". EB-IU bat etorri zen IPCaren igoerarekin bi zergetan ezik, hiri ondasunak eta urari dagozkionak.

PPko ordezkaria den Juan Carlos Avian igoeraren aurka azaldu zen, "gaur egun dagoen krisia kontuan izanda, zergak igo beharrean lanpostuak sortu behar direla uste



■ ■ Zergen gaia eztabaidatu zenez Periko Osoro, haziendako teknikoa, ere izan zen plenoan.

dut. Hortaz, zergak iaz bezala mantentzearen alde nago eta beste batzuk jaistearen alde, hala nola, lokalen irekierari buruzkoak. Enpresari txikiei gauzak erraztu egin behar zaizkie hauek baitira lanpostuak sortzen dituztenak. Austeritatea mantendu behar du Udaletxeak eta inbertsio pribatua bultzatu behar da". Bukatzeko Isaak Loiolak hitzegin zuen PNVren izenean, "92. eta 94. urte bitartean zergak ez ziren igo eta iaz IPCa gehitu zitzaion. Inguruko herriekin konparatuz gero, gure tasak behetik daudela ikus dai-

teke eta prestazio aldetik haiek bezain ondo gaude. Orain arteko dinamika, beraz, ez da gaizki joan".

1996ko ZENBAIT ZERGA

■ Hiri ondasunak	%0,54 (+ %4,30)
■ Nekazal ondasunak	%0,68(-)
■ Ekintza ekonomikoak	%1,25(-)
■ Ibilgailu mekanikoak	%1,3 (+%1,30)
■ Eraikuntza eta obrak	%3,70 (-)
■ Herriko Antzokia	+50 pta.
■ Lokalen irekierak	%1,25 (-)

+ Gehitu den zenbatekoa
- Iazko tipoak mantentzen dira

Gabi JATETXEA



Nafarroa enparantza. Tel 74 12 30

Berrikuntzak egin ondoren **zabalik** daukagu **jantokia!**

- Menu bereziak aukeran
- Karta zabala
- Bataioak
- Jaunartzeak
- Despedidak
- Enpresa bazkari-afariak...

**BEREZITASUNA:
HARAGIA**

Ondo para Errosario kaleko jaiak!

Plaza Handiko etxeak

- Foruen enparantzan kokatuak, plaza barrokoaren albo bat osatzen duten bi etxe hauek Udaletxearen parean daude.
- Eraikinak oinplano trapezoidala du eta estalkia lau isurkitara. Hiru fatxada ditu, behekoa gehi beste bi solairu eta ganbara. Beheko solairua harlanduz eraikita dago eta goiko biak eta ganbara harlangaitzez. Modiloiez apainduriko tailategalek ematen diote bukaera fatxadari.
- Fatxada nagusiaren baoguneen kokapena oso ordenatua da zortzi ardatz eratuz, guztiak harlanduz inguratuak. Beheko solairuan arkuak daude. Lehenengo eta bigarren solairuan balkoi dintelduak eta ganbaran leiho dinteldun txikiak daude.
- Eskuin aldeko lehen solairuan, 2. eta 3. baoguneez balkoi hegaldua eta jarraitua osatzen dute. Platabandek (harlanduzko zirrindak) banatzen dituzte solairuak. Beheko solairuko arkupea erdi puntuko hamar arkuk

osatzen dute, euritik eta eguzkitik babestuz Udaletxeko arkupearekin asimetrikoa izanik. Arkuok pilareetan eusten dira harroina eta inposta leunak izanik.

- Beheko solairuko lokalak hasieran zaldientzako kortak ziren, 1876. urte inguruan kortez gain bi denda ere zeudelarik.
- Etxe hauek Udalak finantziatu zituen gero alokatu egin zituelarik. Herriko ostaturia ere bertan kokatzen zen. 1808. urtean saldu egin zuen Independentzia gerrako gastuei aurre egin ahal izateko.
- Lehenengo etxea 1756. urterako eraiki zen eta bigarrena 1765erako.
- Etxeak eraiki aurretik, Andrés Perez Narbaizaren dorretxea zegoen kokatuta bertan.
- Francisco Ibero azpeitiarrak planoak egin zituen 1754.eko urtarilaren 27rako aurkeztuz. Antonio Larraza eta Cristobal Elorza maisu harginek hargintza lana egin zuten. Harotza, berriz, Domingo Osoro izan zen.

PELLO ARRIETA



Gerardo Garate

"Katalo" (1943-1980)



- Elgoibarren jaio zen 1943. urteko azaroaren 24an.
- Pilar ikastetxean ikasi zuen 1945etik 1957ra bitartean.
- Urte askotan aritu zen kotxe saltzaile Elgoibarko Analsa automobil enpresan.
- Ezaguna zen oso herritarren artean, bihotz zabala eta alaia zelako.
- Bizitzan gertatu zitzaizkion anekdoten artean bitxikeriarik ere badago: hogeita bost urterekin, Argedas herrian (Nafarroa) zezenak adarra ipurditik sartu zion, zulutik 2 cm.ra.
- Zezenak eta futbola izugarri gustatzen zitzaizkion. Baita sukaldaritzaren ere; ahal zuen guztietan lagunekin soziedadera joaten zen. Juergazale amorratua zela esan behar.
- Bitxori Guenaga etxebarritarrekin ezkondu zen 1978ko martxoaren 4an. Seme bat izan zuten, Jon.
- 1980. urtean hil zen, martxoaren 13an, auto istripuz.

Richi

Zorionak eta ondo pasa jaiak!

ILEAPAINDEGIA ■ DEPILAZIOA ■ MASAIA

ILERAKO TRATAMENDUETAN ESPEZIALISTAK:

Koipea ■ Kaspas ■ Erorketa

Errosario 6 - 1. Tel. 74 30 11. ELGOIBAR



Errosario 21

74 17 15 ELGOIBAR

BATAIO
ETA
JAUNARTZE
JANTZETAN
ESPEZIALISTAK

MOTZAK

Atletismoko emaitzak

Mintxeta-Txankakua Atletismo taldeko neska-mutilak Ermuko "Jose Merino" Memorialean aritu ziren pasa den igandean. Aurrendenboraldiko kros lasterketa honetan lehen-dabiziko postuetan geratu ziren hainbat korrikalari. Gorka Sanchez lehena sartu zen helmugan bere kategorian. Alebinetan, Ana Etxaniz bigarren eta Alaitz Merino laugarren eta benjaminetan, Julen Merin laugarren izan zen.

Karakatera II. igoera

Datorren azaroaren 18an, Karakatera II. Igoera burutuko da Morkaiko Mendizale Elkarteak eta Urgazi Triathloi Taldeak antolatuta. Irteera Plaza Handitik izango da, goizeko 10etan. Izena emateko epea irekita dago eta parte hartzeko baldintza bakarra Deba Behekoa izatea da. Ikusmin handia sortu zuen iaz, antolatu zen lehen aldiari, frogak honek. Partaidetza aldetik uste baino gehiago animatu zen tontorrera korrika igotzera eta ikuslegoa ere, dexente bildu zen Karakate gainean. Iaz Jose Mari Fernandez Susok lortutako 31 minutuko eta 34 segunduko errekorra haustekotan dabilzanik ere bada aurten, beraz, lasterketa egunean emoziorik ez da falta izango.

San Pedrorra igoera

Datorren ostegunean, hilak 12, Pilarika egunean, zikloturisten San Pedrorra V. Igoera burutuko da. Txirrindulariak Plaza Handitik aterako dira eguerdiko 12etan.



Elisabeth Ibarra:

"Nik nahiago dut belar artifiziala"

■ **Noiztik Eibartarrak taldean?**
- Iaz hasi nintzen entrenatzen.

■ **Txikitatik baloiarekin ibiltzen zinen?** - Bai, etxean aita eta anaia futbol zaleak... Eskolarteko jokuetan futboleant aritzen nintzen eta gero C.D.an hasi nintzen. Entrenatzen eta partiduak jokatzen egon ondoren eta, besterik ez zidatenez esan, Eibarrera joatea erabaki nuen.

■ **Elgoibarren jokatzetik nahi?**
- Eibarren gustura nago. Oin egunero joaten naiz baina normalean pare bat egun astean, baina ez zait gogorra egiten Eibarrera joan beharra.

■ **Zein mailatan zaudete?**
- Gorengo maila dago eta gu azpiko kategorian gaude. Ipar aldeko zona-kot taldean aurka jokatzen dugu.

■ **Igotzeko aukerarik izan duzue sekula?** - Behin izan zuten igotzeko aukera baina Espainia osoan jokatu beharko genuke eta hori ezinezkoa zaigu, jende asko baitago lanean.

■ **Zein da zure ezaugarri nabarmenena?** - Aurrelaria izanik bizkorra naizela suposatzen da. Egia esan, nahiko bizkor egiten dut korrika eta ostikada ere indartsua daukat.

■ **Eta golak?** - Hori zailagoa da, batzuetan bale eta beste batzuetan kale.

■ **Noiz arte aritzen dira neskak futboleant?** - Taldean zaharrenak 24 urte ditu eta Azkoitian



badago 27 urteko bat. Zaharragoak ez ditut ezagutzen.

■ **Mutilen eta nesken jokatzeko era oso ezberdina al da?** - Mutilek erresistentzia handiagoa dute. Teknikoki agian hobeak izan daitezke baina entrenatuz lortzen da hori.

■ **Belar artifizialeko zelaiak, zer iruditzen?** - Naturalak baino gehiago atsegin ditut. Naturean gehiago nekatzen naiz eta horrez gain, aprobetxamendu aukera handiagoa eskaintzen dute.

■ **Lehiakiderik gogorrena?** - Azpeitiarrak. Igo berriak izan arren oso indartsuak dira, gogorak.

■ **Bihotzeko taldea?** - Athletic-a.

■ **Etxeberriarekin orduan gustura, ez?** - Bai, oso jokalaria ona da eta etorkizun handikoa gainera.

■ **Aita entrenatzailea izanik, kasu egiten diezu haren aholkuei?**

- Bai, partidu baten ostean gaizki egin dudana azaldu eta ni akatsak zuzentzen saiatzen naiz. Anaiak, berriz, ez dit ezertxo ere esaten, partiduetera ere ez da joaten; gurasoak bakarrik joaten dira.

• **Adina: 14**
Jokalaria bat: Guerrero
• **Praka motzetan gustura? Bai**
• **Lesiorik?**
... **Inportanterik ez**

BARRUEN DEKORAZIO-RAKO ESTUDIOA

- Proiektuak eta erreformak
- Lokal komertzialak eta etxebizitzak
- Obren zuzendaritza eta gremioen koordinakuntza
- Neurriar egindako altzariak

Errosario 15. ELGOIBAR ☎ 74 40 19 / 55



Salvador Celaya ITURGINTZA

BILTEGI ETA BAINUGINTZA
BEROGAILU ELEKTRIKO ETA GASDUNAK

Errosario 22. Tel: 74 04 94

Igandean jokatuko dira Futbito Txapelketako lehen partiduak

Igandean, goizeko 10etatik aurrera, Urasandiko Herri Eskolako kanpoetan Urasandiko XVI. Futbito Txapelketaren lehen partiduak jokatu dira. Hogei taldek, A eta B taldeetan banatuta, eman du, aurten izena, iaz baino sei talde gutxiagok. Izan ere, gutxienez hogeik ekipo behar dira txapelketa mar-txan jartzeko. Zerrenda osatzeko biren faltan zeuden arren, azkenean hogeik talde elkartu dira. Igandero, bosna partidu

jokatuko dira, igande batean A taldekoek jokatuko dute eta hurrengoan B taldekoek. Arbitratzeaz aste horretan jokatzeko ez duen taldeko ekipo bat arduratuko da. Aurrekontua Udalaren laguntzarekin eta ekipo bakoitzak hasieran jartzen dituen 15.000 pta.rekin osatuko da. Antolakuntza ere aldatetarik izan da. Iaz aritu zen Agustin Santiagok utzi egin du eta Aitor Elizburuk hartu du antolakuntzaren ardura.



■ ■ Garajes García taldekoak, pasa den denboraldiko Ligako irabazleak.

FUTBITO EKIPOAK

A TALDEA

- Karkis
- King-Kong
- Oraiko Cafe
- Pedrusko
- P.S.K.
- Luckie Luke
- Aterpe
- S. Pitxote
- S. Karapola
- Berrogei Duro

B TALDEA

- H. Orbela
- Kosakos
- Sanroketarra
- Ametsa
- Arrejuntaos
- S. Braga
- Aldavas
- Uda Berri
- Roke
- Rebel Urbi

EGUTEGIA

Urriak 8 igandea

- Arbitraia (Roke)
- 10,00 S. Karapola - Berrogei Duro
- 11,00 Aterpe - S. Pitxote
- King Kong - P.S.K.
- 12,00 Oraiko Cafe - Luckie Luke
- Karkis - Pedruskos

Urriak 12 igandea

- Arbitraia (P.S.K.)
- 10,00 Aldavas - Rebel Urbi
- 11,00 S. Braga - Arrejuntaos
- Sanroketarra - Uda Berri
- 12,00 Orbela - Roke
- Kosakos - Ametsa

KIROL

EMAITZAK

Eskubaloia (Elgoibar Hiriko Saria)

Kadete mutilak:

- Elgoibar 22 - Almen 4
- Bergara 16 - Almen 16
- Bergara 12 - Elgoibar 10

Kadete neskek:

- Jauja 5 - Pagoaga Elgoibar 19

Senior mutilak:

- Txankakua Elgoibar 20 - Leizaran 20

Futbola

- Hernani 2 - Haundi 2 (igandea)
- Haundi 1 - Barakaldo 3 (asteazkena)
- Elgoibar 3 - Zumaiako 1 (1. errej.)
- Elgoibar 4 - Hamaikak Bat 1 (Jubenilak)
- Elgoibar 2 - Antiguoko 2 (Kadeteak)
- Elgoibar 1 - Eibar 2 (Infantilak)
- Elgoibar 2 - Urretxu 0 (Neskak)

Areto Futbola

2. maila

- Ad. Jimenez 1 - Elgoibar F.S. 6

AGENDA

Eskubaloia

7, larunbata (Kiroldegian)

- Senior mutilak
- 17,30 Txankakua Elgoibar - Zestua

Futbola

7, larunbata (Mintxetan)

- 11,45 Urki A - Eibartarrak (Jubenilak)
- 15,15 Gazteak - Antzuola (2. errej.)
- 17,00 Elgoibar - Hernani (Kadeteak)
- 8, igandea
- 10,00 Gazteak - Telleri (Jubenilak)
- 12,00 Eibar S.D. - Zarautz (1. errej.)
- 13,45 Eibartarrak - Gure Txokoa (Neskak)
- 17,00 Haundi - Aloñamendi

Areto Futbola

6, ostirala, Kiroldegian

- 22,00 Elgoibar F.S. - Urretxu (2. maila)
- 23,00 Elgoibar - Lasarte (1. maila)

ELGOIBARKO IZARRA

BIENTZAKO OHARRAK:

- 1.- Lanak ELGOIBARKO IZARRA Kultur Elkartera, Ubitarte 4, bidali behar dira.
- 2.- Kartazalean 'ELGOIBARKO IZARRA IDAZ LEHIAKETAK' jartzeaz gain, 'Prosa Lehiaketa' edo 'Etxegiña Bertso-Paper Lehiaketa'n parte hartzeko den zehaztu beharko da. Hau ezezik, zein mailatan parte hartzen den ere jarri beharko da (A,B edo C). Baldintza hauek betetzen ez dituzten lanak baztertuak izango dira automatikoki.
- 3.- Sari banaketa eta irabazleen berri ematea, San Anton jaietan egingo den jaialdi berezi batean izango dira.

1995

X. PROSA LEHIAKETA

Oinarriak:

- 1.- Elgoibartarrek ezezik Elgoibarren ikasten ari den edonork ere parte har dezake.
- 2.- Hiru maila bereziko dira:
A.- O.H.O.ko 7. eta 8. mailak.
B.- Ertainetako 1. eta 2. mailak.
C.- Ertainetako 3. eta 4. mailak.
- 3.- Idazlanen luzera:
A.- 3-6 orrialde bitartean.
B.- 4-8 orrialde bitartean.
C.- 5-10 orrialde bitartean.
- 4.- Gaia: librea izango da.
- 5.- Idazteknika: prosaz izan beharko da.
- 6.- Idazlanak hiruna aiez aurkeztuko dira (hiru kopia), izenburua edo giltz-lema batekin eta egilearen inolako ezaugarriarik gabe.
Kartazal barruan eta sobre itxi batean egilearen izen deiturak, helbidea eta hautatutako giltz-lema jarriko dira.
- 7.- Sariak:
A.- 1. Txapela eta 10.000 pta.
2. 5.000 pta.
B.- 1. Txapela eta 30.000 pta.
2. 15.000 pta.
C.- 1. Txapela eta 40.000 pta.
2. 20.000 pta.
- 8.- Lanak entregatzeko epea: Abenduak 11.
- 9.- Epaimahaia ELGOIBARKO IZARRAK izendatuko du eta honen erabakia apelaezina izango da.

XV. 'ETXEGIÑA' BERTSO-PAPER LEHIAKETA

Oinarriak:

- 1.- Elgoibartarrek ezezik Elgoibarren ikasten ari den edonork ere parte har dezake.
- 2.- Hiru maila bereziko dira:
A.- O.H.O.ko 5. eta 6. mailak.
B.- O.H.O.ko 7. eta 8. mailak.
C.- Ertainak (14-18 urte)
- 3.- Bertsoen luzera:
A.- 6 koplak edo 2 bertso.
B.- 8 koplak edo 3 bertso.
C.- 5 bertso.
- 4.- Gaia:
A eta B mailatan gai librea.
C maila: (Bat aukeratu)
'JOSEBA ETXEBERRIA ATHLETIC-era'
'MAITE DUZUN HORI FALTA ZAIZU'
- 5.- Idazlanak hiruna aiez aurkeztuko dira (hiru kopia), izenburu edo giltz-lema batekin eta egilearen inolako ezaugarriarik gabe.
Kartazal barruan eta sobre itxi batean egilearen izen-deiturak, helbidea eta hautatutako giltz-lema jarriko dira.
- 6.- Sariak:
A.- 1. Txapela eta 8.000 pta.
2. 4.000 pta.
B.- 1. Txapela eta 15.000 pta.
2. 7.000 pta.
C.- 1. Txapela eta 30.000 pta.
2. 15.000 pta.
- 7.- Lanak entregatzeko epea: Abenduak 11.
- 8.- Epaimahaia ELGOIBARKO IZARRAK izendatuko du eta honen erabakia apelaezina izango da.

ANTOLATZAILEA:
ELGOIBARKO IZARRA
Kultur Elkartea



LAGUNTZAILEAK:
ELGOIBARKO UDALA
GIPIZKOAKO FORU ALDUNDIA



Aste osoan zehar Amabirjinaren omenezko jaiak ospatzen dihardute Errosario kalean. Errosarioa erre-zatuz eta gure Jaunaren erakusaldiarekin eman zitzaien hasiera pasa den asteburuan. Gero eta jende gutxiago joaten omen da horrelako ekitaldietara baina



JUANITO GOROSTIZA:

"Amabirjiña daukan bakarra da Errosaixo kalia"

- Azken urteotan antolatzailerik ez. Noizko errelebua?

- Aurten moztuko deu koletia, jende gaztiari pasua eman bihar eta.

- Diru kontuetan... - Kalekuen artian hoge mila duro batzeixugu. Diferentziarik ez egoteko, 1.000 pta. ematen dabez danak, tabernek 2.000 eta bankuek 3.000.

- Gorostiza eta Untzon itxita, alderik igartzen da?

-Urtero eitxen dogun afarixan ez gera ehun da piku lagun sartzen Baltasarrian. Gainontzian anbertia behera etorritxa dao. Gelatxo ekartzen dou, baina inok ez deu dantza itxerik nahi izaten.

- Nola bizi dituzue jaiak kaletarrok? - Gure asmua izaten da Amabirjina ahotan hartu eta behintzat tradiziak segitxu deixala. Amabirjina honek gauza bat dauka: errosaixua. Zuk mesede bat eskatu bihar dozunian



errezau eitxen dozu, eta Amabirjina honek errosaixua daukanez, sinbolua, espeziala izaten da.

- Amabirjina oso maitatua da. - Amabirjinan figuria daukan kale bakarra da Elgoibar guztixan. Kalia ere oso famosua izan da. Oin ez, baina sasoi baten kastako jendia mordua zauan, Kakumetarrak, Rusuak... "Calle de la feria" deitzen jakon lehen.

- Salbia ere kantatzen diozue. - Maite Vallejo eta bixok hasi ginan oin dala lau urte. Guk presentaziñua ein eta fededunak etortzen dia errezua ein eta Salbia kantatzera. Fedia daukatenak behintzat etorri deixezela geure tradiziuekin jarraitzeko.

- Egunik politena? - Domekia egun espeziala da, hildakuen aldeko mezia egoten da, txistulariak, jubilaueri omendixa, lunch-a... Politxak urten jakuz pelota partiduak ere bai. Bazkarixa ere ederra izaten da; Dakinta eta Duo Plaentxi borondatez etortzen dia...

- Errosario kalea berria egitekotan, nolakoa? - Sasoi batian alkantarilarik ere ez zakazen eta gaur egun asfaltua "señoriala" dakagu. Errosaixo kalia tipikua da erreka partetik, zenbategi eta zenbategi atera ditzun erretratuak!



Kontzertuak

Igandean **INTSUMISIO EGUNA** ospatuko da Bermeon. Egun osoan zehar hainbat ekitaldi izango da ibilaldian zehar. Bezperan ere, larunbat gauen kontzertua izango da **EH SUKARRA, PARABELLUN ETA FLITTER** taldeen eskutik 10etatik aurrera.

Antzerkia

Shakespeareren **"ROMEO Y JULIETA"** antzeztuko du Ur taldeak hilaren 6an, 7an eta 8an Donostiako Victoria Eugenia antzokian. Emanaldiak arratsaldeko 8etatik aurrera izango dira.

Bekak

"NOVIA SALCEDO FUNDAZIO-AK" ENPRESA-PROIEKTU IDEIA bat dutenez, Audax Plana deitu du. Lizentziatu eta diplomatuei zuzendua. Epea: azaroak 30.

Lehiaketak

Iñaki Begiristain idazleari buruzko **GAZTETXOEN LEHIAKETA** antolatu du Azpeitiko Udalak, Euskadiko XIII. Antzerki Topaketan barruan. OHoko 7. mailatik BBBko 2. mailara edo Erreformako 2. mailara bitarteko ikasleek har dezakete parte. Epea: urriak 11.

FELIPE ARRESE BEITIA OLERKI SARIA antolatu dute Euskaltzaindiak eta Bizlbo Bizkaia Kutxak. Euskaraz idatzitako edozein olerki aurkez daiteke. Epea: urriak 16.

Gazteen MUSIKA BANDA

1994ko abenduan Gazteen Musika Banda sortu zen. Aurretik soka instrumentuz osatutako orkestra txiki bat ba omen zegoen, baina hura desagertu eta beste honi ekin zitzaion. Joseba Garmendia 32 urteko pasaitarra da bandako zuzendaria.



AZKUE

Orain zortzi urte inguru hasi zen Joseba Musikeskolan lanean, tronpeta irakasle. Elgoibarko Gazteen Musika Bandak iazko abenduan eman zuen lehen kontzertua eta ikasturte bukaeran bigarrena. 15-16 urteko neska mutilez osatutako banda da, nahiz eta gazteagoak eta nagusia-goak ere badauden. 30 pertsona guztira.

Bizpahiru urtez instrumenturen bat ikasten ari direnek aukera dute bandan sartzeko, nahiz eta denek ez duten posible. Josebak esan bezala, "bandan klarinete asko dago baina tronpetak gutxi, beraz, tronpeta ikasten daudenen artean aukera egin beharra dago". Lehenago edo beranduago, gehienek izango dute bandako partaide izateko aukera, "Elgoibarren gauza bitxi bat gertatzen da. UBI amaitu eta gero, jendea unibertsitatera joaten denean, musika eta instrumentua utzi

egiten ditu. Beraz, behetik datozen gaztetxoei bidea irekitzen zaie".

Beatles-en musika

Astean behin entsaiatzen dute, "gehiago ezinezkoa da. Musika ezezik, dantza, ingelesa eta beste hainbat gauzatan ere sartuta daude gaur egungo gazteak eta denborarik ez zaie geratzen ezertarako". Halere, ilusio faltarik ez dago gazte hauen artean, "motibazio izugarria da beraienzat. Beste instrumentu batzuekin jotzen dute, pieza osoak...". Ikasleak, gurasoak eta zuzendaria bera ere gustura daude lehen esperientzia honekin, "jotzen dugun musika, gainera, ahalik eta modernoena izaten saiatzen naiz. Pasodoble bat baino askoz gusturago jotzen dute Beatles-en abesti bat".

Josebaren asmoa eta nahia, epe ertainera Gazteen Musika Banda, Nagusien Musika Bandaren zubia izatea litzateke, "orain nire bandan daudenak gero nagusien bandan jotzea".

"Jotzen dugun musika modernoa izaten saiatzen gara"

Salerosketak

Opel Kadet GSI 1.800 injección SS-AJ 76.000 km. salgai.

☎ 19 19 54

Motokultor bat (8cc, diesela, PASMALI), karroa eta surkadorea. Prezio ona.

☎ 74 11 29

BI AKUMULADORE eta HIRU BEROGAILU salgai. Erabili gabe, egoera oso onean.

☎ 74 09 23

ARMAIRU BAT saldu nahi dut: biltzen den ohea, 6 kajoi, bi sekreter eta abar... Prezio onean.

☎ 74 15 75

KANPING BAT SALTZEN DUT. 3 plaza. 5.000 pta. Berria.

☎ 74 37 34 Nuria

BI EDREDOI 90cm.koak SALGAI. Estrenatu gabe. Merke.

☎ 74 33 24 Maite

Etxebizitzak

Pertsona bat behar dut Donostiako OKENDO kalean PISUA konpartitzeko.

☎ 42 51 49

ELGOIBARREN PISUA OSATZEKO pertsona bat behar dugu.

☎ 88 42 59 Alaitz

(asteburuetan)

Elgoibarren PISU BAT KONPARTITZEKO 2 pertsona behar ditut.

☎ 62 53 77

DONOSTIAN LOGELA BAT konpartitzeko neska bat behar da. Gros auzoan.

☎ 74 42 07 Aitor

LOGELA BAT daukat libre bi oherekin eta erropak ere garbituko nituzke.

☎ 74 09 44

ETXEBIZITZA BAT SALTZEN DUT EULOGIO ESTARTAN. Egoera oso onean dago.

☎ 74 10 46 Maite

(Gauz 10etatik 11etara)

Ingelerako irakasle bat naiz eta alokairuan dudan ETXEA KONPARTITUKO NUKE

☎ 74 24 99 Antonia

Ingelerako irakasle batek LOGELA BAT eta pentisio osoa edo sukaldean ibiltzeko aukera nahi ditut. (9 hilabete)

☎ 42 84 06 / 74 02 36

Richard

Lana

Neska bat ETXEKO EDOZEIN LAN EGITEKO PREST dago.

☎ 74 33 24 Maite

Eibarren kontsultarako prestatua dagoen LOKAL BAT alokatzen da.

☎ 79 85 24 Isabel

Atenditu ezin dugulako, LOGOPEDIA ZENTROA alokatzen da Eibarren.

☎ 79 85 24 Isabel

ANDRE BAT behar da bi pertsona nagusi zaintzeko. Goizeko 9etatik gaueko 9ak arte.

☎ 74 29 30

Emakume bat ETXEKO LANAK EGIN, NAGUSIAK ZAINDU ETA ABAR... egiteko prest dago

☎ 75 62 57 Mari Karmen

Partikularrak

OHOKO KLASE PARTIKULARRAK ematen ditugu Elgoibarren.

☎ 68 20 42 / 67 06 49

ARTILE ESKULANGINTZA IKASTAROA emango dugu Goikola baserrian, Lasturren Interesatuek deitu:

☎ 19 90 82 Karmen

Hezkuntza Zientzietan lizentziatuak (pedagogia) eta 7 urteko esperientziarekin OHO, IEE eta HSAOLEko klase partikularrak emango ditut euskaraz eta gaztelerez.

☎ 74 39 24 Maite

MARRAZKI TEKNIKO ETA DIEDRIKO KLASEAK ematen ditut.

☎ 74 43 98 / 74 34 01 Iñaki

MATEMATIKA, FISIKA ETA KIMIKA klaseak maila guztietan ematen ditut.

☎ 74 43 98 / 10 27 82

Marian, gaueko 9,30etatik aurrera

Agurrak

Zorionak Lur Izagirreri urriaren 3an 13 urte bete zituelako. Bere sendiaren partez.

Bestelakoak

Iaz UBI D gelan ibili zirenek afaria egingo dute urriaren 21ean. Joan nahi duena 7 etan King-kong-en ager dadila.

Karitasek BI OHE TXIKI (80 cm/ 90 cm.) koltxoiekin eta LABADORA bat behar ditut.

☎ 74 15 09 - 74 12 57

BARRENa asteazkenean

Datorren alea Pilarikako zubia dela eta asteazkenean, hilak 11, banatuko dugu ostiralean beharren.

IRAILEAN

Jaiotakoak

- ▶ Unai Díez Hidalgo (Irailak 1)
- ▶ Janire Uranga Olmos (Irailak 8)
- ▶ Garazi Osoro Casquero (Irailak 11)
- ▶ David Angulo Rey (Irailak 27)

Ezkondutakoak

- Angel Fernandez Fuentes eta Isabel Gonzalez Vazquez (Irailak 9)
- Guillermo Larrinaga Manzisidor eta Mari Cruz Arendo Merino (Irailak 13)
- Ramses La Hoz Perez eta Ainhoa Idarraga Arrieta (Irailak 23)
- Jesus Lemos Janeiro eta Montserrat Bao Abeijón (Irailak 24)

Hildakoak

- Pedro Agirregozmekorta (irailak 24) 76 urte.

6 OSTIRALA

18,30 ODOL ATERALDIA

✓ P.M. Urruzuno 8an

19,00 URTXINTXA TALDEAREN ERAKUSKETA

Gaia: "Gorbeia ingurune ekologikoa"

✓ Kultur Etxean
Hilaren 22ra arte

22,15 ANTZERKIA

Izenburua: "Il ladronne"

Antzezleak: Gaztelubide elkarte

✓ Herriko Antzokian
Sarrera: 400 pta.

7 LARUNBATA

19,30-22,15 ZINEA

"Congo"

Sarrera: 400 pta.

8 IGANDEA

9,00 INTSUMISO EGUNERA AUTOBUSA

✓ Irteera Plaza Handitik

Antolatzailea: Elgoibarko Talde Antimilitarista

16,30-19,30-22,15 ZINEA

"Congo"

Sarrera: 250 pta./400 pta.

9 ASTELEHENA

22,15 ZINEA

"Congo"

Sarrera: 400 pta.

10 ASTEARTEA

22,00 ZINEA

"Escape de Absolom"

Sarrera: 250 pta.

(Ikuslearen eguna)

12 OSTEGUNA

12,00 SAN PEDRORA IGOERA

✓ Irteera San Pedrotik

Antolatzailea: Elgoibarko Lagun Taldea

16,30 ZINEA

"La tribu de los Brady"

Sarrera: 250 pta.

19,30-22,15 ZINEA

"Los juncos salvajes"

Sarrera: 400 pta.

13 OSTIRALA

22,15 ZINEA

"El primer caballero"

Sarrera: 400 pta.

ERROSARIO KALEKO JAIK

6, ostirala

17,30: Txafliu jaurtiketa.

17,45: Buruhandi eta erraldoiak.

19,30: Tritikilarien kalejira.

20,30: Errosarioko Amabirjinari otoieta eta Salbea.

Jarraian: Itxaropena abesbatzaren kontzertua leku berean.

21,15 Afari herrikoia Gure-Biden Dakinta eta Duo Plaentxik alaituta.

7, larunbata

ERROSARIOKO

AMABIRJINAREN EGUNA

10,45: Txafliu jaurtiketa.

11,30: Pilota partiduak.

17,30: Buruhandi eta erraldoiak.

19,30: Trikitilarien kalejira.

22,30: Gelatxorekin dantzaldia.

Atsedendian Elgoibarko

"Faraloes" taldearen jarduna.

8, igandea

11,00: Txafliu jaurtiketa.

12,00: Buruhandi eta erraldoiak.

12,30: Errasario kaleko hildakoan aldeko meza, ezpatadantzarekin eta parroki abesbatzarekin.

Ondoren: txistulariekin desfilea Amabirjinaren irudiraino.

Jarraian: Aureskua jubilatuaren omenez eta lunch-a.

txandak

FARMAZIAK:

DATA	EGUNEZ	GAUEZ
7, larunbata:	Yudego	Zabaleta
8, igandea:	Yudego	Zabaleta
9, astelehena:	Etxeberria	Anduaga
10, asteartea:	Etxeberria	Anduaga
11, asteazkena:	Etxeberria	Anduaga
12, osteguna:	Etxeberria	Anduaga
13, ostirala:	Etxeberria	Anduaga

OKINDEGIA:

8, igandea: ZABAleta

12, osteguna: DONA MERCEDES



Congo

Zuzendaria: Frank Marshall

Antzezleak: Dylan Walsh,

Laura Linney, Ernie Hudson.

Congon kokatutako enpresa batek kimikoki perfektuak diren diamanteak topatzen ditu. Californiako enpresa nagusitik diamante kanpamendurekin harremanetan jartzeko kanpamendukoak hilda daudela ikusten dute. Zer gertatu den jakiteko, Karen doktorea Congorantz abiatuko da. Berkeleyko Unibertsitatean gorila eme batekin esperimentatzen dabilzan bi ikerlarik animalia Congora bidaltzea erabakitzen dute. Hauek antolatzen duten espedizioan parte hartzea erabakiko du Karen dokotoreak.

Escape de Absolom

Zuzendaria: Martin Campell

Antzezleak: Ray Liotta, Michael

Lerner, Lance Henriksen.

2022. urtea. Gartzela pribatu bateko zuzendariak preso biolento eta gatazkatsuenak mundutik isolatzeko irtenbide bat topatu du. Absolom irla sekretuan dena da oihana. Presoak oihanean uzten dituzte, bakar-bakarrik, hil arte. John Robbins, armadako kapitaina Absolom-en irauin bizitzen saiatuko da.



sake
KOPERATIBAK

INEKO

NEKAZARI KOOPERATIBA

Presta zaitez
hotzari eta
euriari aurre
egiteko



S. Frantzisko 24 ELGOIBAR Tel: 74 07 62 (Itziarko industrialdea E-13 ITZIAR - Tel: 19 93 00)



Urriaren 9tik aurrera **DENDA BERRIA** Ubitarte lean (poligonoan)
URRIAN PREZIO BEREZIAK

*Tuna arratsak, esia,
Iskuntzako hitzari.*

DEKORAZIOA.

Santa Ana, 2 • Tel. 74 35 09 • BILGOTEAR.